



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

PRENTSA OHARRA. ERREENTERIAKO UDALA 2000.

HKEEk 2001eko apirila – 2002ko martxoa aldirako Errenteriako Udalaren 2000ko urtealdiari buruzko fiskalizazioa mamitu du.

Fiskalizazio lan honek honako erakunde hauek besarkatu ditu: udala bera, lau erakunde autonomoak, Errenteria Garatuz, SA udalaren sozietate publikoa eta %25ean partaidetua dagoen Oarsoaldea, SA sozietatea.

Udalaren fiskalizazioan HKEEk hainbat legehauste azaleratu ditu. Honela, bada, langileriari bagagozkio, arazoak Arcepafe ezartzetik eratorritakoak dira (euskal toki eta foru administrazioaren lan baldintzak arautzen dituen erabakia), bai ordainsari igoserari, bai lansaioari dagokionez. Euskal Herriko Auzitegi Nagusiak 2002ko urtarrilean Arcepafera txertatzeko Udal Erabakia etetzeko Autoa eman zuen.

Obra eta zerbitzuen kontratazioan, fiskalizazio txostenak bi kontratutan publizitate eta lehia printzipioak urratu direla azaleratu du, guztira 168 mila euro egiten dituztenak. Halaber, udalak berak exekutaturako hiri-mantenimenduko ekintzetarako beharrezko diren hornigai eta materialen kontratazioan espedienterik ez dela bideratzen ikusi dugu. Erosketa hauek 651 mila euro egin zituzten.

Urteko kontuei dagokienez, HKEEk zalantzan jarri du udal kontuetan ageri diren Higiezinduko saldoen eta kapital dirulaguntzen zuzenketa.

Nolanahi ere, erakunde fiskalizatzaileak aldeko txostena egin du bai udalak legea betetzeari dagokionez, bai udalaren kontularitzako erregistroei dagokienez ere, aldeko iritzia arestian aipatu ditugun alderdiez mugatua badago ere.

Errenteria Musikala Erakunde Autonomoa dela eta, HKEEren txostenak azpimarratu du aldibaterako langileen 13 kontrataziotatik 11tan, ez dela eskagarriak diren berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak gorde.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Gainera, HKEEk txostenean udalaren finantzaren gaineko azterketa ere barne hartu du. Erakunde fiskalizatzailearen azterlan honetatik ondorentzen da Errenteriako Udalak biztanleko dituen sarrera arruntak, tamaina bereko gainerako udalenak baino txikiagoak direla, behar bada, duen “gaitasun fiskal” urriagoaren ondorioz. Honen aldean, biztanleko sarrera arruntak handiagoak dira Errenterian, gainerako udaletan baino, langileriaren kostuek eraginda. Biztanleko zorra ere handiagoa da udal honetan, nahiz inbertsioei multzo bereko udalen maila beretsutan eusten zaien.